


IZENBURUA: SAMURGOA
EGILEA: CLAUDE BOUJON
ITZULTZAILEA: ALICE CASENAVE ETA
 IKAS-EKO LANKIDEAK
ILUSTRATZAILEA: CLAUDE BOUJON
ARGIALETXEA: IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA, 2017



Hau ere adiskidetasunari buruzko album ilustratua da. Gaztain jauna eta Grisú jauna bizilagunak diren bi untxi dira. Bakoitzaren maniak areagotu egiten dira elkarbitzitan. Egun batean borrokan hasten dira eta azeriak ikusi egiten ditu, urrutitik. Aukera polita iruditzen zaio gosea berdintzeko, baina garaiz konturatzen dira bi untxiak, eta Gaztain jaunaren etxean babesten dira. Azeriak temati jarraitzen du. Baina bi untxiek, elkarri lagunduz, azeriaren atzaparretatik ihes egitea lortzen dute. Eta adiskidetasuna berreskuratzea ere lortzen dute. Ilustrazioak ederrak eta xeheak dira, irakurle txikienentzat oso egokiak.

IZENBURUA: JONEK JONE IZAN NAHI DU
EGILEA: DANI MARTIRENA
ILUSTRATZAILEA: ANA IBAÑEZ
ARGIALETXEA: LIBURU ILETSUAK, 2017



Transexualitatearen gaia du ardatz album ilustratu honek, baina ez du zuzenean gai hori jorratzen. Protagonista amets egiten duen haur bat baino ez da. Kontua da bere ametsen artean Jone izatearena ere badagoela. Alegia, tituluak dioen moduan, Jonek Jone izan nahi du. Baina hori baino gehiago ere bai, noski. Izan ere, txikitan nork ez du amestu handitan astronauta izatearekin? Edo hegazkin-pilotu, edo sukaldari, edo ile-apaintzaile, dentista, mediku, albaitari, zapatari... Liburu honetako protagonistak ere amets egiten du eta etorkizunean hainbat gauza izan nahi du. Dani Martirena idazleak errimaren hari finez josi ditu Joneren ametsak, geure baitarako nahiz ozen irakurtzeko moduan. Ane Ibañez ilustratzaileak, berriz, collage teknikaren bidez kartoizko kutxetan irudikatu ditu pentsamendu horiek. Horretarako, indioilar txuleten erretiluentzat erabilitako kaxez baliatu da. Bertan muntatu ditu irudiak, eta, ondoren, bakoitzari argazkia atereaz digitalizatu ditu libururako. Horrela, orriak pasatuz, kutxak zabalduz eta itxiz, protagonistaren nortasuna erpin guztietatik ezagutzeko bide-orria sortu dute Martirenak eta Ibañezek.